

BEDERATZI PAUSO

“... eta golaaaa. Johann Schollek laugarrena lortu du etxeko taldearentzat”.

Klik.

Angel Marik itzali egin du irratia. 21:36. Bederatzi minutu eskas geratzen dira partida amaitzeko; bi minutuan han izango da. Koloretako argiak piztu, eta azeleragailuari eragin dio, sakon. Larunbata izaki, auto andana dabil Ibarreko kaleetan, baina sirena-hotsa entzun bezain laster, bide-bazterrera egiten dute batzuek zein besteek.

Futbol-zelaiko parkingera iritsi denean, beretzat erreserbatutako lekuan sartu du autoa, taldearen autobusaren ondoan. Azkarra da: minutu eta berrogeita hamasei segundo. Zigarro bat piztu du, eta patxadaz burua jaso. Zazpi minutu behar omen dira zigarro bat erretzeko, eta hori eta arbitroak gehitzen duena izango du lanari ekin aurretik. Gaur, gainera, egun berezia da, *Ibarreko Sportingek* bigarren mailan jarraitzea erdietsi baitu, eta beraz, zaleak pozik aterako dira, eta ez du pozaren ezta harrorik gehiegizko hordialdirik baino izango.

Motorra itzali, eta furgonetatik jaitsi da. Txaleko islatzailea jartzen ari den bitartean, baina, bat-bateko zalaparta batek bahitu dio atentzioa. Begirada futbol-zelaiko atera eraman, eta orduan, jende multzo handi bat ikusi du harmailetatik arrapaladan ihesean, korrika, bereganana laguntza oihuak zuzentzen. Gerturatu ahala, anbulantziako koloretako argiek zaleen irudiak argiztatu dituzte: umeak negarrez, gurasoak oihuka, neska gazte ilehori bat odoletan, hogeita hamar bat urteko mutil bat antsietateak jota eta garrasika...

Angel Mari zurtuta geratu da, eta zigarroa hatzen artetik erori zaio.

Ziztada zorrotz batek esnatu egin du.

Begiak ireki, eta mailu astun batek garuna zanpatu dio. Begiak itxi, eta il-tze gori bat batek lokiak zeharkatu dizkio alderik alde. Une batez, kordea gal-tzekotan egon da, baina esnatu egin duen ziztadak bere horretan darrai, temati. Esku bat besapera eraman, eta mugimendu trakets baten bidez, lehenengo jaunartzea egiterakoan amak oparitutako urrezko gurutzea atera du. Hasperen bat. Hori baino ez da igaro urdailetik gora datorkion uholdea geldiarazteko es-kua ahora eraman duenean. Ez da nahikoa izan. Bezperako kubatek zein txupi-toek gainezka egin dute, eta gela anonimo horretako parketa biharamunaz bete da. Ohearen ertzean eserita, okaren adarrak urrundu heinean nola bereizten diren begiratzen duen bitartean, bezpera egindakoaz oroitzen saiatu da. Baina ezer gutxi datorkio burura, gauaren hasierako garagardoak eta taberna bateko txokotik begirada kentzen ez zion eta emazte ohiaren antza zuen emakume ilehori hura ez badira. Gainerakoa eldarniopean galtzen zaio.

Zutitu eta ia hankaz gora joan da, baina pentsioetako gelak txiki sama-rrak izaten dira, eta horri esker, paretak geratu egin du zorabioak eragindakoa. Pauso pare bat eman ditu errenka, eta mesanotxetik zigarro bat hartu eta piztu egin du. Zupada pare bat, eta tiraderatik *Ibuprofeno* bat atera eta ahora eraman du. Zigarro paketearen ondoan dagoen edalontziak whisky kondar batzuk ditu oraindik, eta besterik ezean, horrekin lagundu dio pilulari eztarrian behera egi-ten.

Zigarroari beste zupada bat eman, eta errautsa bularrean tatuaturiko *Ying-Yangean* erori zaio. Horri begiratzen dio futbolak eman eta kendu dizkio-

naz pentsatzen duen bakoitzean. Baina gaur ezin du. Lokietan sentitzen dituen taupadek ez diote atsedenaldirik ematen, eta sinboloaren alde beltzak guztiz estaltzen du zuria.

Zigarroa mahai gaineko kopan itzali du. Hori da gela osoan dagoen objektu pertsonal bakarra; hori eta karteran zimurtuta daraman alabaren argazkia. Une batez, eta keak begiak are gehiago gorritzen dizkion arren, trofeoari begira geratu da. Luze. Garai hobeak gogoan. Ondoren, kopa eskuetan hartu, eta oinuan duen urre koloreko plakak dioena irakurri du bizitzan hamaikagarrenez: “98/99 denboraldiko errebelazio-jokalari onena. Bundesliga”.

Irri egin, eta mahai gainean utzi du: ez du berriz ukituko.

Gidariak motorra itzali duenean esnatu da.

Autobusaren atzeko eserlekuetan dago, erdi etzana. Ahoan kaktusik gabeko basamortu idor bat du, eta begiak behin eta berriz kliskatzen dituen arren, ez zaizkio ikusten dituen izartxo borobil eta zuriak desagertzen. Ingurua aztertu duenean, bakar-bakarrik dagoela konturatu da. Taldekideek alde egin dute, eta inor ez da saiatu bera esnatzen, edo saiatu bada, begi-bistakoa da ez duela helburua lortu. Nagituta, bizkarra bertikalera eraman du, eta une batez, amak esaten zion moduan eserita dagoela otu zaio. Ondoren, Hansen irudia etorri zaio burura. Aita hil eta gutxira agertu zen amaren ondora. Madarikatuak egunero eramaten zuen entrenamenduetara, eta entrenamendurik ez bazuen, hark jartzen zizkion egin beharreko korrika-saio eta ariketak. Ez zuen beste ezer egiteko aukerarik. Futbola, futbola eta futbola. Bai, futbolak gauza asko zor dizkio Johanni.

Besoak autobusaren sabaia ukitzeraino luzatu, eta zutik jarri da. Sabela puztua du, eta zerbait edan beharra dauka: orain. Motxila zabaldu, eta ura azukrearekin nahastuta gordetzen duen botilatxoa bilatu du. Topatu bezain laster, eskua kirol-zakutik baldar atera, eta marrazo baten irudia duen potoari begiratu dio. Ez dio, ordea, berehalakoan tragorik kendu. Izan ere, motxilaren patrika batean zintzilik, egunkari-orrialde baten muturra ikusi du. Ertzetik heldu, eta kanpora tira egin du. Eta orduan oroitu da. Eta begiek diz-diz egin diote.

Aspaldian ez dio orrialde horri erreparatu, nahiz eta beti daraman motxilan sartuta. Bi eskuez lagunduta, parez pare zabaldu du. Hor ageri da, koloretan, *Süddeutsche Zeitung* egunkariko bi orrialde betetzen, John Wayne aktorearen begirada ebakia aurpegiaren erdian, falta botatzeko prest. Argazkiaren goiburuan, berriz, hitz bakar bat: "Killer". Irri egin du, denboran hegan, eta bere burua ikusi du, gazte, *Bayern Munich* futbol taldearen goleatzaile. Elkarrizketa hura *Borussia Dortmund* taldeari lau gol egin zizkionekoa da, lesioaren aurreko garaikoa. Artean, hogeita bost urte besterik ez zituen, emaztea haurdun eta kirol-bizitza osoa aurretik. Etorkizuna, ordea, ez zen berak uste bezalakoa izan, *Stuttgarten* aurkako derbyan aurkari batek aluminiozko takoak sartu baitzizkion eskuineko belaunean. Emaitza ezin okerragoa izan zen: lotailu gurutzatuaren haustura eta hiru urteko errehabilitazioa. Eta hasieran kementsu aritu bazen ere, berehala gailendu zitzaion ospeak eta diruak ekarritakoaren alderdi ilunena, eta ondorioz, belauna ondo sendatzeko eta alaba hazten ikusteko aukera.

— Ez al duk jaistea pentsatzen! —bota dio autobus-gidariak.

Ez dio begiratu ere egin. Marrazoaren hortzetatik trago azkar bat edan, eta tentuz sartu du botilatxoa motxilan. Ondoren, esku biez, beranduago be-

harko dituen gauza guztiak bere tokian dauden egiaztatu du. Hor daude. Txandalaren kremlera goraino igo eta gidaria agurtu gabe abiatu da erdiko atearantz. Atzean, eserleku baten magalean, egunkariko orrialdea geratu da, zabalik, zimurtuta.

Eskailerak jaisten hasi eta belauak min eman dio. Ez du inoiz erabat osatzea lortu, eta bezperako gehiegikeriek guztiz gogortu dizkiote muskuluak. Baina gaur berdin zaio. Dagoeneko ez du atzera bueltarik.

— Scholl! Joan hadi behingoz etxera, mozkorti alaena!

Zale batek ezustean harrapatu du, baina ondoren entzun dituen txistuek ez. Burua jaso, eta ahoa zabaldu duenari begiratu dio, desafiatzaile. Haren aurpegia garunaren hormetan zizelkatu duenean, ordea, irri harro bat marraztu eta aurrera egin du.

Ez du berriz ikusiko.

Atea zabalik utzita sartu da aldagelara.

— Akabatu egingo ditugu! Aditzen?! Akabatu!

Entrenatzailea errieta berpiztailea amaitzen ari da. Kokotsa zorrotz eta zerura begira ari zaie azken aginduak ematen.

— Partida hau irabazi beharra dago; bestela, zulora goaz zuzenean.

Begietan sua, banan bana erreparatu ditu jokalarien aurpegiak, eta haie-tan ikusten dituen beldur eta segurtasun-ezaren zantzuak.

— Ezin dugu kale egin.

Jokalari batzuek adi begiratzen diote misterrari. Beteranoenek, berriz, kolore zuriko esparatrapu zatiekin babesten dituzte hamaika guduk utzitako mailatuak. Badira, izkina batean pilaturik, txandala kendu ez dutenak ere: denboral-

dia amaitzera dagoen honetan, jokatzeko esperantza zipitz bat ere gordetzen ez dutenak. Johannek aldagelaren aurkako izkinan hartu du lekua. Aurten bi partida baino ez ditu jokatu, lehenengo biak hain zuzen. Urtero gauza bera gertatzen zaio futbolaren mertzenario bihurtu zenetik. Esaten ari denari jaramon egin gabe, bizkarra erakutsi dio entrenatzaileari, eta ipurdia, gainerako taldeki-deei. Urduri dago. Badaki dagoeneko bere onenak eman dituela, baina, hala ere, ezin du eskuen dardara gelditu. Praka motzak, berna-babesak, galtzerdi luzeak eta aluminiozko takodun botak jantzi ditu. Bederatzi zenbakia duen elastikoa bakarrik dagoenerako utzi du. Gaur jokatu egingo du, azken minutuak baidira ere. Gaur, zale guztien aurrean zelairatuko da, azkenekoz. Ziur da horretaz.

— Eta orain zelaira. Jan egingo ditugu!

Tropelean eta garrasika atera dira jokalaria guztiak aldagelatik, baita txandalean jantzitakoak ere, eta entrenatzaileak, aurretik igarotzen diren heinean, zaplasteko bana eman die bularrean, gogor, eurengan duen konfiantzaren adierazgarri. Jokalarien atzetik entrenatzailea atera da. Pixkanaka aldagela betetzen duten oihuen oihartzuna harlauza zurietan desagertu da. Apurka-apurka, Johannarnasaren hotsak aldagela bereganatu du. Izerdi patsetan dago. Eskuek ez dute praka motzetatik ihes egiten dion hari-muturra ezkututzen asmatzen. Dardarek lokietatik darizkion izerdi-tantak jauzi eginarazten dizkiote, eta paraxuterik gabe lehertzen dira lurreko baldosen aurka. Gaur du benetako Killer bat dela demostratzeko azken aukera. Amak oparitutako urrezko gurutzadun lepokoa kendu du bizitzan lehenengoz, eta une batez begiratu ostean, musu eman eta pertxeroan eskegi du. Gol bat egin duen bakoitzean, eta ez dira gutxi izan, imintzio hori bera errepikatu izan du urteetan. Baina gaur halakorik gerta-

tuko balitz ere, ez lioke musurik emango gurutzeari. Gaurko beste zerbait du pentsatua.

Aldagelatik atera baino lehen, ispiluaren aurrean gelditu da. Aurpegia zimurtzen hasia zaio, buruan soilguneak nabaritzen, ahoaren inguruko bizarra urdintzen eta begien urdina lausotzen. Papar-aldea ere erortzen hasi zaio, eta alaba ikustea debekatu zioten egunean tatuatutako *Ying-Yangak* beltzez margotzen dio bihotza. Futbolak ezer eman baino dena kendu dio.

Halako batean lortu du gaurko ospakizunerako prestatutakoa esparatrapu zuriari esker paparrari irmo itsastea. Ondoren, praktetatik zintzilik duen sokatxoa kontu aldiz lotu, eta taldearen elastiko gorria sartu du burutik behera. Ozta-ozta kabitzen da poliesterreko kamiseta barruan. Badirudi une batetik bestera lehertu egingo dela. Azken begirada bat, eta aldagelatik atera da.

Gaur bere agurraren eguna da.

Partida azkar joan zaio begien aurrean.

Etxeko taldea erraz nagusitzen ari zaio aurkariari: Ibarreko Sporting 3 – Unión Deportiva Vecindario 0.

— Scholl! —oihukatu du misterrak begirada zelaitik apartatu gabe.

Johanni sugar batek kiskali dio barrua. Aulkitik atera eta laugarren arbitroarengana zuzendu da. Hara bidean, entrenatzaileak ez dio bularrean zaplastekorik eman, eta etorkizunean ere ez dio emango. Laguntzaileak aluminiozko takoak behar bezala dauden egiaztatu, eta zain gelditu dira, epaileak jokoa noiz eten.

Piii!

Vecindarioko atzelari batek falta egin du arearen ertzean, eta epailearen txistuak adierazi. Automatikoki, laugarren arbitroak banderatxoa jaso, eta aldeketa iragarri du. Epaile nagusiak baiezko keinua egin du buruarekin, eta hogeita bat zenbakidun aurrelari gazteak aldageletarako bidea hartu du, oinez, lasai, ikusleen txaloez gozatuz. Johanni luze joan zaio itxaronaldia, eta gazteak zelaian ertza adierazten duen karezko marra zeharkatu orduko, berdegunera atera da lasterka, pausoa asko zabalduz, paparra airean, elegante, ziur, harro, errukia aldagelan utzita.

Zaleek ez dute txalo artean hartu, baina jada berdin zaio. Baloia dagoen puntura gerturatu, eta falta jaurtitzera doan jokalaria bultzakada bat eman dio. Azken horrek begiak plater begiratu dio jokalaria beteranoenari. Johannek ez dio begirada horri erantzun. Izan ere, Killerraren begiak aurkarien ateko eskuadrandaude iltzatuta, eta ez du huts egiteko asmorik. Begirada jomugatik kendu gabe, bat, bi, hiru... bederatzi pauso eman ditu atzera, eta epailearen txistuaren zain gelditu da.

Piii!

Zelaian isiltasuna da nagusi. Belaunak dantza egiten dio. Bederatzi pauso. Bederatzi pausok banatzen dute bere sena gazte garaian zena bezain basatia izaten jarraitzen duela frogatzetik, benetako Killer bat dela demostratzeko azken aukeratik, futbolarekin dituen zorrak kitatzetik, zirt edo zart egitetik, bere patua betiko sinatzetik. Ez du zalantzarik egin. Aurrelari alemaniarrari John Wayneren begiak marraztu zaizkio. Badoa. Gaurkoan ez zaio alabaren irudia begien aurretik igaro. Badoa. Jada ez dago atzera buletarik. Lasterka hasi da. Bederatzi, zortzi, zazpi... Egundoko zartakoa eman dio baloiari, eta larruzko esfera suziri baten moduan abiatu da aurkarien aterantz.

“... eta golaaaa. Johann Schollek laugarrena lortu du etxeko taldearentzat”.

Mundu guztia oihuka hasi da, elkar besarkatzen, bata bestearen gainean salto egiten. Johann korrika abiatu da aulkira bidean. Ero. Ez da geldituko. Ez du inork geldituko. Jada geldiezina da. Entrenatzaitetik gertu dagoenean, lurrera bota eta belaunen gainean irristatuz egin ditu azken metroak. Gelditu denean, zerura begiratu eta bi besoak jaso ditu, ukabilak uzkuratuz, zainak bistaraziz. Begiak itxi eta berehala nabaritu du misterraren ahoaren kiratsa berearen aurrean, aulkitik jauzi egin duten taldekideen izerditu gabeko gorputzak gainean erortzen, zelairatutakoenen usain mingotsa bata bestearen gainean pilatzen.

Azkenean iritsi da unea: agur esateko unea. Haragi-hezurrezko metaren pisuak lehertuko duela iruditu zaionean, praka motzetan ezkutatutako hari-muturra bilatu du. Eta kostata, baina azkenean aho, buru, beso, hanka, esku, zakil, belaun eta irribarreen artean, sokatxoa topatu eta tira egin du.

Zart!

Jendeak oihuka jarraitu du.

Roberto Müller